



### **13. KLASE MAGISTRALA: GAIXOTASUN EXANTEMATIKOAK**

Gaixotasun exantematikoen sailkapena:

- Makulo – Papularrak
- Besikula-anpoiladunak
- Purpuriko-petekialak

### **GAIXOTASUN NAGUSIAK**

#### **ELGORRIA**

Elgorria, elgorriaren birusak sortutako gaixotasun bat da. Sukar eta katarro sintomen prodromo baten ondoren, exantema morbiliforme bat ageri da aho mukoseko lesio batzuekin batera (Koplik-en orbanak). Normalean gaixotasun arin eta automugatua da. Baina immunoeskasiaren bat duten pertsonetan konplikazio larriak eragin ditzazke. Bere intzidentzia asko murriztu da txertoaren erabilerari esker.

- Orokortasunak (birusak, erreserborioak, portadoreak, transmisio mekanismoa, kutsapen periodoak, inkubazioa...)
- Epidemiologia. Txertoaren garrantzia
- Exantemaren ezaugarriak (ikonografian oinarritua) Koplik-en orbanak, Elgorriaren aurpegia.
- Konplikazioak (Sobreinfekzio bakterianoak, Entzefalitisa, Panentzefalitis esklerosante subakutua).
- Tratamendua eta prebentzioa

#### **ERRUBEOLA**

Errubeola gaixotasun biriko bat da, sukarra, exantema eta adenopatiak ageri direlarik. Orokorrean bilakaera onbera du, baina haurdunandiko lehenengo hiruhilabetean gertatutako primoinfekzioak enbriopatia larria sortu dezake. Prebentziorako txertoa daukagu.

- Orokortasunak (birusak, erreserborioak, portadoreak, transmisio mekanismoa, kutsapen periodoak, inkubazioa...)
- Epidemiologia. Txertoaren garrantzia

**PEDIATRIA SAILA  
DEPARTAMENTO DE PEDIATRIA**



- Exantemaren ezaugarriak (ikonografian oinarritua)
- Konplikazioak (artralgia, artritis, sobreinfekzioa).
- Jaiotzetiko errubeola (aipatu)
- Tratamendua eta prebentzioa

### **ESKARLATINA**

Eskarlatina *Streptococcus pyogenes*-ak sortutako gaixotasun bat da. Orokorrean faringoamigdalitis bat ageri da, azaleko erupzio mikropapulosoarekin, ikutzean latza. Antibiotiko betalaktamikoei sentsiblea da.

- Orokortasunak (agente eragilea, toxinak, transmisio mekanismoa ....)
- Exantemaren ezaugarriak (ikonografian oinarrituta)
- Tratamendua

### **MEGALOERITEMA**

Megaloeritema edo baita 5. gaixotasuna deitua. Parvovirus B19-ak sortzen du eta ezaugarri nagusia bi masailetan “zaplasteko” baten antzera ageri den erupzioa da. Exantema behin biremia desagertu eta gero ageri da, diagnostikoaren momentuan gaixo gehienak kutsakorrek izateari utzi diotelarik.

- Orokortasunak (birus mota, kutsapen tarteak inkubazioa....)
- Exantemaren ezaugarriak. Faseak (ikonografian oinarrituta)
- Tratamendua eta prebentzioa

### **BAT-BATEKO EXANTEMA**

Roseola edo 6. gaixotasuna ere deitua. Orokorrean bizitzako lehen 2 urteetan ageri da. Ezaugarri nagusia 3-5 egunetako sukar altua eta behin sukarra desagertuta exantema bat agertzen da, batez ere enbor aldean, zentrifugoa eta azkar desagertzen dena. Diagnostikoa klinikoa da eta tratamendua sintomatikoa.

- Orokortasuna (birus mota, kutsapen tarteak inkubazioa....)
- Exantemaren ezaugarriak. Faseak (ikonografia oinarrituta)
- Tratamendua eta prebentzioa



## **KAWASAKI GAIXOTASUNA**

Jatorri ezezaguneko baskulitisa, egun batzuetako iraupena duen sukarrarekin. Diagnostikorako beharrezkoak dira zenbait irizpide kliniko betetzea, analisisien emaitzek lagundu dezaketelarik. Gammaglobulinekin tratamendu goiztiarrak, aneurisma koronarioen sorrera saihesten laguntzen du.

- -Definizioa
- -Irizpide diagnostikoak
- -Konplikazioak
- -Tratamendua eta jarraipena

### **Gomendatutako Bibliografia:**

- Nelson Essentials of Pediatrics. 9th Edition. Karen J. Marcdante, Robert M. Kliegman, Abigail M. Schuh. 2023